

**PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ UNIBERTSITATEAREN EREMUAN HONDAKINEN SORRERA
PREBENITZEKO KANPAINAREN KONTRATAZIORAKO ADMINISTRAZIO-BALDINTZA ORRIA**

EZAUGARRIEN KOADROA

KONTRATUAREN XEDEA/OBJETO DEL CONTRATO

KODEA/Codificación

UNIBERTSITATEAREN EREMUAN HONDAKINEN SORRERAN PREBENTZIO-KANPAINA EGITEKO ZERBITZUA KONTRATATZEA	
---	--

AURREKONTUA/PRESUPUESTO

Zifratan/en cifr	Letratan/en letra
104.071 € (BEZ bame)	EHUN ETA LAU MILA HIRUROGEITA HAMAIKA EURO (BEZ bame)

URTEKOAK/ANUALIDADES

Ekitaldia/ejercicio	Zenbatekoa/importe	Aurrekontu xedapena Aplicación presupuestaria
2008	104.071 €	1 0000.649.442.07.01 2008

BURUTZE EPEA/PLAZO DE EJECUCIÓN ATZERAPEN ZIGORRAK/PENALIDADES POR DEMORA

2009ko abenduaren 30a baino lehen	Administrazio Baldintzen Orriaren 13. baldintzak aurrez ikusitakoak
-----------------------------------	---

PREZIOEN BERRIKUSPEN FORMULA/ FORMULA DE REVISIÓN DE PRECIOS

EZ DAGOKIO

BERMEAK/GARANTÍAS

Behin-Behinekoa/ Provisional	Behin-Betikoa/ Definitiva
Ez da zehazten.	ESLEIPEN-ZENBATEKOAREN 100EKO 5A

ENKANTEKO PUBLIZITATEKO GEHIENEZKO GASTUEN ZENBATEKOA/IMPORTE MAXIMO DE LOS GASTOS DE PUBLICIDAD DE LA LICITACIÓN

Argitalpenarengatik ordaindu beharreko gehieneko zenbatekoa 600 euro dira.
--

OINARRIZKO PROPOSAMENA ETA HAUTABIDEAK/PROPUESTA BASE Y ALTERNATIVAS

Onarpena/Admisión	Betebeharrak, modalitateak eta aspektuak/Requisitos, modalidades y aspectos
EZ	

ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK/CRITERIOS PARA LA ADJUDICACIÓN

Irizpideak/Criterio		Haztapena/Ponderación
1.-	Prezioa	60 puntura arte
2.-	Memoria	10 puntura arte
3.-	Programa	10 puntura arte
4.-	Hobekuntzak	10 puntura arte
5	Kanpainaren ondorengo balorazioa	10 puntura arte

ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA/ SEGURO DE RESPONSABILIDAD CIVIL

EHUN MILA (100.000) EURO

2009ko uztailaren 1eko 37/09 lehendakaritzaren ebazpenen onartua.

DONOSTIAN, 2009ko uztailaren 1ean.

MANKOMUNITATEKO LEHENDAKARIA

Izp./Fdo.: Ricardo Ortega.

AURKIBIDEA

I. KAPITULUA.- KONTRATUAREN EDUKIA	4
1.- KONTRATUAREN XEDEA.....	4
2.- GAUZATZE-EPEA.....	4
3.- KONTRATUAREN PREZIOA	4
4.- FINANTZAZIOA	4
5.- ORDAINTZE-MODUA	4
6.- PREZIOAK BERRAZTERTZEA.....	4
7.- BERMEAK	5
8.- KONTRATUA GAUZATZEA.....	5
9.- KONTRATISTAREN LAN-BETEBEHARRAK	5
10.- KONTRATUA LAGATZEA.....	6
11.- KONTRATISTAREN BESTELAKO BETEBEHARRAK.....	6
12.- HARRERA ETA BERME-EPEA.....	6
13.- ZIGORREZ KONTRATISTARI EZ BETETZEAGATIK	6
14.- KONTRATUA EBAZTEKO ARRAZOIAK	7
15.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK.....	7
II. KAPITULUA.- KONTRATAZIOA.....	7
16.- ESLEIPEN-PROZEDURA	7
17.- KONTRATATZEKO GAITASUNA	8
18.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA.....	9
19.- KONTRATAZIO-MAHAIA.....	13
20.- DOKUMENTUAK KALIFIKATZEA, HAUTATU ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA	13
21.- ESLEIPENA, LEGEZTATZEA ETA GASTUAK.....	14
III. KAPITULUA.- KONTRATUA GAUZATZEA.....	15
22.- IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA	15
23.- DATU PERTSONALAK BABESTEIA	15
24.- JURISDIKZIO ESKUDUNA.	15
I. ERANSKINA.....	16

UNIBERTSITATEAREN EREMUAN HONDAKINEN SORRERAN PREBENTZIO-KANPAINA EGITEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-BALDINTZA BEREZIEN ORRIA

I.- KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Orri hauetan oinarrituta egindako kontratuaren helburua unibertsitatearen eremuan hondakinen sorreran prebentzio-kanpaina garatzearen zerbitzuaren kontratazioa egitea da. Dokumentu honetan eta Baldintza Tekniko Berezien Orrian zehaztutako baldintzetan egingo da. Horiek biek kontratu-izaera izango dute.

2. GAUZATZE-EPEA

Kontratuaren xedea gauzatzeko gehieneko epea 2009ko abenduaren 30a izango da.

3. KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren prezioa 104.071 €-koa (BEZ barne) izango da. Eskaintzaileek zenbateko hori hobe dezakete.

Prezio horren barruan ez dago bakarrik sartuta kontratuaren prezioa, baita ondorioz sortzen diren gastu guztiak ere, edozein motatakoak barne, hala nola zergak, tasak eta zerga-esferako edozein ariel, Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) eta lizitazio- nahiz esleipen-gastuak barne.

4. FINANTZAZIOA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko finantzazioa aurrez ikusia dago aurtengo aurrekontuaren kargura 1 0000.649.442.07.01 2008 partidaren barruan.

5. ORDAINTZE-MODUA

Kontratuaren prezioa kobratzeko dokumentua aurkeztu eta adostasuna eman ondoren ordainduko da hurrengo moduan:

- Zenbatekoaren % 10 kontratua sinatzen denean.
- Zenbatekoaren % 90 betetzez amaitzen denean.

6. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Kontratu honetan ez dagokio prezioak berraztertzea, kontratuaren iraupena kontuan hartuta eta 30/2007 Legeak, urriaren 30ekoak, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoak, (SPKL) 77.1. artikuluan xedatutakoaren babesean.

7. BERMEAK

7.1. Behin-behineko bermea

Ez da zehazten.

7.2. Behin betiko bermea

Kontratuaren behin-behineko esleipendunak, hartutako betebeharrak betetzen dituela bermatzeko, San Markoseko Mankomunitatearen alde behin betiko bermea osatuko du, hau da, esleipen-zenbatekoaren ehuneko 5 (% 5). Zenbatekoa zehazteko Balio Erantsiaren gaineko Zerga kendu beharko da. Bermea SPKLk 84.1. artikuluan xedatutako edozein bide erabiliz osa daiteke.

Berme osoa osatzeko epea hamabost (15) lanegunekoa izango da, kontratuaren behin-behineko esleipenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita eta honakoei erantzungo die:

- Kontratuak aurrez ikusten dituen prestazioa behar bezala gauzatzeari.
- Betebeharrak betetzeko orduan, kontratistaren atzerapenarengatik Administrazioari sortutako gastuei.
- Kontratua gauzatzean edo ez betetzean Administrazioari sortutako kalte-galerei, ebaztea ez dagokionean.
- Kontratistari jarritako zigorrei.
- Kontratua ebatziz gero, agin daitekeen konfiskazioari.

Administrazioak erabiliz gero, bermea berriz osatu beharko da berehala.

Bermea SPKLk 90. artikuluan xedatutakoaren arabera itzuliko da, berme-epea amaitzen denean eta esleipendunak kontratu-betebehar guztiak betetzen dituenean.

8. KONTRATUA GAUZATZEA

Kontratu honen xede diren lanak kontratista-esleipendunaren arrisku eta ardurapean gauzatuko dira eta ezingo da prezioa aldatu, ezta kalte-ordainik jaso ere, arloaren arabera indarreko legeria aplikagarriak zerrendatutako arrazoiren bat gertatzen denean izan ezik.

Kontratua Orri honetan eta Baldintza Tekniko Berezien Orrian dauden baldintzei jarraiki garatuko da. Halaber, arloan une bakoitzean indarrean dagoen legeriari erreparatuko zaio. Gainera, Administrazioak kontratistari interpretatzeko argibideak eman diezazkioke.

Kontratistari edo bere mende duen pertsonari egotz dakizkiokeen ekintza edo ahazteengatik kontratuaren martxa ona arriskuan jartzen bada, Administrazioak beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartzea eska dezake hori behar bezala gauzatzeko.

9. KONTRATISTAREN LAN-BETEBEHARRAK

Kontratuaren xedea dena egiteko erabilitako langileei dagokienez, kontratista-esleipendunak lanaren, gizarte-segurantzaren, laneko segurtasun eta osasunaren eta lan-arriskuen prebentzioaren arloan indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu. Era berean, kontratua garatzen ari den bitartean emandakoak bete beharko dira. Beharrezko organoak osatu beharko dira eta bere funtzio espezifikoa xedapenak betetzen direla zaintzea izango da. Halaber, lan-zentro bakoitzean legezko xedapenak betetzeko langile trebatuak izendatuko ditu kontratista-esleipendunak.

Betebehar horien betetzen ez badira edo lanaren, gizarte-segurantzaren, laneko segurtasun eta osasunaren eta lan-arriskuen prebentzioaren arloan xedapenen arau-haustea badago eta hori kontratista-esleipendunaren edo bere langileen ala, hala badagokio, azpikontratisten edo beren langileen aldetik sortzen bada, San Markoseko Mankomunitateak ez du erantzukizunik izango eta kontratista-esleipenduna izango da arduradun bakarra, bai Mankomunitatearen beraren aurrean, bai Lan Administrazioaren, Gizarte Segurantzaren, Mutuen eta abarren aurrean, baita hirugarrenei edo edozein kalteturen aurrean ere.

10. KONTRATUA LAGATZEA

Kontratuaren ondorioz sortutako eskubideak eta betebeharrak ezin daitezke transmiti.

11. KONTRATISTAREN BESTELAKO BETEBEHARRAK

- Kontratista kontratua gauzatzeko behar diren eragiketen ondorioz sortutako kalte-galeren arduraduna izango da, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legeak 198. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Betebehar hori bermatzeko, kontratista-esleipendunak ziurtatu beharko du, kontratua sinatu baino lehen, aseguru-poliza sinatu duela eta arriskua estaltzen duela gutxienez ehun mila euroz (100.000 €).

- Ordainketa osagarrirako eskubiderik gabe, kontratistak beharrezkotzat jotzen diren zerbitzuak egin beharko ditu kontratua behar bezala garatu eta betetzeko, hala nola lan-bileretan edo informazio-bileretan parte hartzea.
- Kontratutako zerbitzuei buruz enpresa esleipendunak ezagut ditzakeen datu guztiak isilpekoak dira eta horien identitatea eta sekretua gorde beharko ditu. Kontratistak Administrazioari eta pertsona kaltetuei kalte-ordaina eman beharko die isilpe profesionalaren betebeharraren kontra egiteagatik sortutako kalte-galeren ondorioz.
- Kontratua betetzeko enpresa esleipendunak tratamendu automatizatuaren bidez datu pertsonalak erabiltzen baditu, datu pertsonalak babesteari buruzko indarreko legeriak xedatutakoari erreparatuko zaio.
- Enpresa esleipendunak ezingo ditu kontratuaren ondorioz lortutako datu automatizatu pertsonalak aplikatu edo erabili bertan agertzen diren helburu desberdinekin, ezta beste pertsona ere, nahiz eta kontserbatzeko izan.
- Kontratuaren prestazioa amaitzen denean, tratatutako datu pertsonalak Mankomunitateari entregatuko zaizkio. Enpresa esleipendunak bereak suntsitu egin beharko ditu, Administrazioaren idatzizko baimena izan ezik ondorengo zerbitzuetan erabiltzeko. Kasu horretan gorde daitezke behar bezalako segurtasun-baldintzetan bost urtez.

12. HARRERA ETA BERME-EPEA

Kontratu honen izaera kontuan hartuta, berme-eperik zehaztea ez da aurrez ikusten.

13. ZIGORRAK KONTRATISTARI EZ BETETZEAGATIK

a) Kontratuak gauzatzeko epeak:

Kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratua gauzatzeko epea betetzearekiko atzerapena izaten badu, bai epe guztiari, bai, hala badagokio, epe partzialei dagokienez, Administrazioak honakoa aukera dezake: ebaztea eta, beraz, bermea galduko da edo eguneko zigorrak jartzea (kontratuaren prezioaren 1.000 euroko 0,20 euro).

Atzerapenarengatik zigorrek kontratuaren prezioaren 100eko 5en multiploa lortzen duten bakoitzean, kontratazio-organoak ahalmena izango du ebazteko edo gauzatzeko eta zigor berriak ezartzeko.

Zigorrak kontratazio-organoaren erabakiz jarriko dira eta, horretarako, izendatuz gero, kontratuaren arduradunak proposamena egingo du. Berehala betearazlea izango da eta eraginkorrak egingo dira ordainketa guztiaren edo partzialaren kontzeptupean kontratistari ordaindu behar zaizkion zenbatekoei edo osatutako bermeari kenduta, ziurtagirietatik ezin daitezkeenean ken.

b) Prestazioen gauzatze partziala:

Kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratuan definitutako prestazioak zati batean bete ez baditu, Administrazioak, bereizi gabe, erabaki dezake ebaztea edo zigorrak jartzea. Zigorrak kontratuaren prezio guztiaren 100eko 10 izango dira.

14. KONTRATUA EBAZTEKO ARRAZIOIAK

Zerbitzuen kontratua ebazteko arrazoiak dira aurreko atalean berariaz aipatutakoak eta 30/2007 Legeak, urriaren 30ekoak, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoak 206. eta 284. artikuluetan zehaztutakoak.

Ebazpenaren ondorioei dagokienez, SPKLk 208. eta 285. artikuluetan araututakoari erreparatuko zaio.

15. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK

Kontratazio-organoari dagozkio honako eskumenak: kontratua interpretatzea, betetzeko orduan sortzen diren zalantzak argitzea, interes publikoaren arrazoiengatik aldatzea, ebazpena erabakitzea eta horren ondorioak zehaztea, mugen barruan eta SPKLn xedatutako baldintza eta ondorioei jarraiki.

II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

16. ESLEIPEN-PROZEDURA

Kontratua prozedura irekiaren bidez esleituko da.

Lehiaketa esleitzeko oinarri bezala erabiliko diren irizpideak, garrantzitsuenetik hasita eta emandako haztapena kontuan hartuta, honako hauek dira:

2.1. *Prezioaren balorazioa. Gehieneko puntuazioa: 60 puntu*

Oinarritzotik gorako proposamenik ez da onartuko. Ikuspegi ekonomikotik proposamen abantailatsuenak baloratuko dira. Ezinbestekoa da eskaintzan aurrekontua banatzea lan desberdinen atal bakoitzeko.

Irizpide hau baloratzeko, eskaintzaileek beren ikerketa ekonomikoetan derrigorrezko zerbitzuetarako eskaintako aurrekontu guztia kontuan hartuko da, partida guztiak, Gastu Orokorrak, Industria Irabazia eta BEZ barne.

Onartutako proposamenen artean eskaintza ekonomikoen puntuazioak kalkulatzeko, horiei erreparatuko zaie eta interpolazio lineala egingo da, P1 puntuaren (gehieneko beherapena, gehieneko puntuazioa) eta P2 (zeroko beherapena, zeroko puntuazioa) puntuaren artean definitutako zuzenaren arabera eta puntu horiek mugatzen duten tartean.

Puntuak honako hauek dira:

P1 – Eskaintzarik merkeenari dagokiona (gehieneko beherapena). Horri gehieneko puntuazioa emango zaio.

P2 – Litzitazio Oinarriari dagokiona. Horri zero puntu emango zaizkio.

Beharpentzat (B) jotzen da, litzitazio-oinarriaren eta eskaintza ekonomikoaren arteko diferentzia zati litzitazioaren oinarria.

Arestian definitutako zuzena lortzeko, bakarrik onartutako eskaintzak kontuan hartuko dira.

Printzipioz, proportzioz kanpokotzat edo ausartegitatzat joko da proposamen guztien beherapena, ehunekoak, gutxienez, aurkeztutako proposamen guztien beherapen-ehunekoaren batez besteko aritmetikoarekiko 10 unitateak gainditzen baditu eta hala aitortu baino lehen alde aurretik ustez horren barruan dauden eskaintzaile guztiei informazioa eskatuko zaie eta dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoa izango da. Eskaintza onartzea hautatuz gero, berme berezia izango du.

Beherapen handiagoek ere 60 puntu izango dituzte.

2.2. Memoriaren balorazioa: Gehieneko puntuazioa: 10 puntu

Argi eta garbi definitu beharko da lana garatzeko erabiliko den metodologia; argi eta zehatz-mehatz zehaztuko dira esleipendunak eta enpresa azpikontratatuak egingo dituen lan guztiak.

Eskaintzaileak azpikontratatuak dituen lan-zatiak zehaztuko ditu eta azpikontratazioak eskaintako aurrekontu guztiaren gainean izango duen ehunekoak adieraziko da.

Diseinu-proposamenak proposatuko dira, erabilitako materialak barne. Kalitatea eta zehaztapen-maila, baita garapena ere baloratuko dira.

2.3. Programaren balorazioa: Gehieneko puntuazioa: 10 puntu

Programaren jarduera desberdinak banatu beharko dira eta atxikitako bitarteko teknikoak nahiz giza baliabideak adieraziko dira.

2.4.- Hobekuntzen balorazioa: Gehieneko puntuazioa: 10 puntu

Proposamenaren hobekuntza-elementutzat joko dira Baldintza Teknikoen Orrian aurkeztutako alderdiekiko hobekuntza guztiak.

2.5.- Kanpainaren ondorengo balorazioa: Gehieneko puntuazioa: 10 puntu

Kanpainaren ondorengo analisiaren metodologia eta emaitzen ebaluazioaren emate-epea kontuan hartuko dira.

17. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Kontratazio-prozeduran parte har dezakete, nazionalitatea alde batera utzita, jarduera honetarako titulazio egokia duten pertsona natural edo juridiko guztiek eta pertsona juridikoen, betiere kontratatutako lanak sinatzeko titulatu eskudunak beren erakundetan badituzte. Bi kasuetan jarduteko gaitasun osoa izan behar dute eta kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta tekniko edo profesionala egiaztatuko dute; Baldintza Orrian eta, oro har, SPKLn aipatutako baldintza guztiak bete beharko dituzte.

Era berean, proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte enpresaburuen elkarteek, xede horrez aldi baterako osatzen badira, SPKLk 48. artikuluan xedatutakoarekin bat. Taldea osatzen duen enpresaburu bakoitzak jarduteko gaitasuna eta kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala egiaztatu beharko du. Horretarako, hurrengo baldintzek aipatzen duten dokumentazioa aurkeztu beharko du.

Beren edo baimendutako pertsonak aurkeztuta egin dezakete ahalorde nahikoaren bidez. Pertsona juridikoaren izenean kideren bat agertzen bada, horretarako gaitasuna duela dokumentuen bidez justifikatu beharko da. Bai kasu batean, bai bestean, ordezkaritari ondoren aipatzen diren kontratatze ezintasun-arrazoiek eragiten dizkiote.

Ezingo dute inolaz ere San Markoseko Mankomunitatearekin kontratatu SPKLk 49. artikuluan aurrez ikusitako egoeraren batean sartuta dauden pertsonak.

Era berean, eskaintza aurkeztu ahal izateko baldintza izango da eskaintzaileak garatutako helburuak edo jarduerak zuzeneko harremana izatea kontratuaren xedearekin, Estatutuek edo fundazio-arauek xedatutakoari jarraiki. Gainera, behar bezala egiaztatu beharko da. Halaber, antolaketa izan beharko du nahikoa elementu material eta langileenekin kontratua betetzeko.

18. PROPOSAMENAK, DOKUMENTUAK ETA AURKEZPEN-EPEA

Lizitazio honen espedientea, baldintzekin eta gainerako elementuekin, San Markoseko Mankomunitatearen bulegoetan (Donostiako Vitoria-Gasteiz kaleko 10. zenbakian) azter daiteke 8:00etatik 14:00etara, lanegun guztietan (larunbatetan izan ezik) lizitazioa Probintziako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Epemuga proposamenak aurkezteko azken eguna izango da.

Era berean, lizitazioa kontratazio-organoaren kontratugilearen profilean argitaratuko da. Iristeko hurrengo web orria erabili ahal izango da: www.gipuzkoa.net/san-marcos.

Proposamenak isilpekoak izango dira eta izaera hori bermatzen duten bitartekoak antolatuko dira lizitazio publikoa iritsi arte.

Proposamenak aurkezten direnean, eskaintzaileak baldintzarik gabe onartzen ditu Orri honetako eta Baldintza Tekniko Berezien Orriko baldintzak, salbuespenik gabe. Halaber, aurkeztutako datu guztiak zehatzak direla adierazten duen aitortpen arduratsua onartzen da, baita Administrazioarekin kontratatzeko baldintza guztiak betetzen dituztela ere.

Enpresa eskaintzaileen proposamenak San Markoseko Mankomunitatearen bulegoetan aurkeztuko dira 8:00etatik 14:00etara 2009ko abuztuaren 28ra arte, hori barne. Bestela, Herri Administrazioen Jardunbide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Komunari buruzko 30/1992 Legeak aurrez ikusitako bitartekoak erabili daitezke.

Harrerarako finkatutako epez kanpo aurkezten diren proposamenak ez dira onartuko, nahiz eta postetxean epea amaitu baino lehen aurkeztu zirela jasoa gelditu, Kontratazio Organoari telexa, faxa, telegrama edo posta elektronikoa bidali ez bazaio. Horretan postaz bidali zen egun berean eskaintza bidali izan dela justifikatu behar da. Iragarkia posta elektronikoz bidaltzen bada, baliagarritasunari dagokionez, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrak 80.4. artikuluan xedatutakoari erreparatu beharko zaio.

Eskaintzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du. Halaber, ezingo dute proposamenik sinatu beste batzuekin aldi baterako elkartean, banan-banan egin badute. Ezin daitezke aldi baterako elkarte batean baino gehiagotan ager. Printzipio horren kontra egiten bada, automatikoki berak aurkeztutako guztiak gaitzetsiko dira.

Proposamenak hiru gutunazal (A, B eta C) itxitan aurkeztuko dira eta bakoitzean honako inskribapena agertuko da: **“UNIBERTSITATEAREN EREMUAN HONDAKINEN SORRERAN PREBENTZIO-KANPAINA EGITEKO ZERBITZUA PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ KONTRATATZEARREN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA”**.

Gutunazal bakoitzean proposamena aurkezten duen enpresaren izena agertuko da, baita proposamena sinatzen duenaren izen-abizenak ere eta nola sinatzen duen. Hori guztia modu ulergarrian egingo da eta hiru gutunazalak sinatu beharko dira.

Gutunazal bakoitzean, gainera, edukiak aipatuko dira honako adierazpenekin:

"A GUTUNAZALA: KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA"

"B GUTUNAZALA: PROPOSAMEN EKONOMIKOA"

"C GUTUNAZALA: PROPOSAMEN TEKNIKOA"

Gutunazalek hurrengo dokumentazioa izango dute:

“A” gutunazalak “KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA” izenburua izango du eta honako dokumentuak agertuko dira:

1. Partaidearen edo ordezkariaren Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia. Gainera, beste pertsona edo erakundearen izenean jarduten duenean, notarioaren ahalordea.
2. Eskaintzailea pertsona juridikoa denean, eratze- edo aldatze-eskitura, hala badagokio, behar bezala inskribatua Merkataritza Erregistroan eta identifikazio fiskalaren zenbakia, merkataritza-legeria aplikagarriarekin bat inskribapena eskatu behar denean. Ez bada eskatu behar, jarduteko gaitasunaren egiaztagiria eratze-eskitura edo –dokumentuaren, estatutuen edo fundazio-egintzaren bidez egingo da eta bertan agertuko dira jarduera arautzeko arauak, dagokion Erregistro ofizialean inskribatuak. Enpresaburuak Europako Elkarteko Estatu kideetakoak direnean, baina ez Espainiakoak, kokatuta dauden Estatuko legeriaren arabera dagokion erregistroan duten inskribapena egiaztatu beharko dute. Bestela, zinpeko aitortpena edo ziurtagiria aurkeztu beharko dute, komunitateko xedapen aplikagarriekin bat.
3. Eskaintzailearen kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala justifikatzen dutenak ondoren adierazten diren bitartekoez:
 - 3.1. Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa:

erakunde finantzarioen txostena edo, hori izan ezean, arrisku profesionalengatik kalte-ordainen aseguruaren ziurtagiria.
 - 3.2. Kaudimen tekniko edo profesionalaren baldintzak:
 - Bitarteko teknikoak eta giza baliabideak:

Eskaintzaile bakoitzak bere dokumentuetan sartu beharko du lanak egiteko giza baliabideen eta bitarteko teknikoen zerrenda zehatza. Lehiaketan bildutako ekintzak garatzeko aipagarriak diren datu guztiak azalduko dira (l. eranskina).

Taldeko langileak propioak edo kanpokoak izan daitezke. Nolanahi ere, eskaintzaileak lizitazioaren xede den kontratua egiteko atxikitako langileen zerrenda erantziko du, eskuragarritasun-ziurtagiriarekin. Horretarako, kontratua, onarpen-dokumentua eta lankidetzeta-hitzarmena, kasuak kasu, aurkeztu beharko da.
 - Lan-taldea:

Lan-taldeak antzeko lanak egin dituela egiaztatu beharko du eta lan-taldeak garatutako lanak eta zerbitzuak aitortu beharko dira. Egindako zerbitzuak edo lanak organo eskudunak luzatutako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira. Zenbatekoa, ezaugarri tekniko nagusiak, data eta hartzailea adieraziko dira.

Lan batzuk hirugarrenekin hitzartzea aurrez ikusia badago, horien izena adierazi beharko da, euren erreferentziak eta azpikontratazioak zenbatekoan duen ehunekoa aurrekontu guztia kontuan hartuta.

Enpresaburu batzuek Aldi Baterako Enpresaburuen Elkartea osatzen badute, osatzen duen bakoitzak gaitasuna eta kaudimena egiaztatu beharko du, aurreko puntuetan xedatutakoarekin bat eta, era berean, esleipendunak izanez gero, legez ABEEen osatzeko konpromisoa hartuko dute. Halaber, proposamenean ABEEren kide bakoitzak egingo duen xedearen zatia adieraziko dute, horien guztien kaudimen-baldintzak zehaztu eta egiaztatzeko.
4. Kontratatzeko Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legeak 49. artikuluan zerrendatutako debekurik ez izatea adierazten duen aitortpen arduratsua. Berariaz aipatuko da zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eguneratuak dituela, indarreko xedapenei jarraiki, bi azken hauei buruz egiaztapen-ziurtagiriak aurkezten diren kasuetan izan ezik.
5. JEZn kontratuaren xedeari dagokion epigrafean alta emana dagoela adierazten duen ziurtagiria. Horretarako alta aurkeztuko da ekitaldi honetakoa bada edo JEZren azken ordainagiria gainerako kasuetan. Bi kasuetan aipatu zergan baja ez emanaren aitortpen arduratsua aurkeztuko da.

6. Enpresa atzerritarren kasuan, Espainiako Auzitegi eta Epaitegietako eskumenak betetzeari dagokion aitortpena kontratuan zuzenean edo zeharka sor daitezkeen gorabehera guztietarako; eskatzaileari dagokion atzerriko jurisdikzio-foruari uko egingo zaio.

Eskatutako dokumentazio guztiaren originalak eta kopiak aurkeztuko dira, behar bezala konpultsatua edo Administrazioak ala notarioak egiaztatua.

“B” gutunazalak “PROPOSAMEN EKONOMIKOA” izenburua izango du eta Proposamen Ekonomikoa izango du honako ereduari moldatua:

..... jaun/andreak,
.....n helbidea duenak ,
..... PKrekin, NAN zenbakiarekin,
..... telefonoarekin, e-mailarekin, bere izenean (edo
..... merkataritza-enpresa ordezkatzeko),n
helbidearekin , PKrekin, telefonoarekin, eta NAN edo
IFK zenbakiarekin (*pertsona fisiko edo juridikoaren arabera*), jarduteko gaitasun eta ahalmen juridiko
guztiz, San Markoseko Mankomunitateak unibertsitatearen eremuan hondakinen sorreran prebentzio-
kanpaina egiteko zerbitzuaren kontrataziorako deitutako prozedura irekiaz jakitun izanik.

AITORTZEN DU:

- 1) Esleipenduna izanez gero, Baldintza Teknikoen eta Administrazio Baldintza Berezien Orrietan xedatutako baldintzen ekintzak egiteko konpromisoa hartzen duela ondoren zehazten den prezioan eta denbora epean:

Donostiako Campusean hondakinen prebentzioa sendotzeko ekintzak

Euroak:.....(BEZ barne)

Gauzatze-epea:.....hilabete

Dokumentu honetan izendatutako zenbatekoetan kontratazioaren ondorioz eta lanak egiteko sortutako gastu guztiak sartuzat joko dira eta zehatz-mehatz esanda honakoak:

- Aldizkari Ofizialean edo Ofizialetan iragarkiaren argitalpenaren eta lizitazioaren gastuak, indarreko xedapenekin bat eta kontratuaren legeztapen-gastuak, hala badagokio. Argitalpenarengatik esleipendunak ordaindu beharreko gehieneko zenbatekoa Orriaren burua dagoen “ezaugarrien koadroan” dago.
- Kontratutako lanak egiteko esleipendunak egin behar dituen gastuak, orokorrak, finantzarioak, aseguruak, tasak, fidantzak, saiakuntzak, joan-etorriak, langileen ordainsariak eta dietan eta Orrian aurren ikusitako gainerakoak barne.
- Zerga-mota guztiak, BEZ barne, eta kontratuaren indarraldian alda edo zehatz daitezkeen beste edozein.

Kontzeptu horiek ezin daitezke kontzeptu edo partida independente bezala sar.

- 2) Kontratua arautzen duten Baldintza Teknikoen Orria eta Administrazio Baldintza Berezien Orria nahiz gainerako dokumentazioa ezagutzen dituela eta berariaz oso-osorik onartu eta ontzat hartzen dituela, salbuespen eta erreseerbarik gabe.
- 3) Ordezkatzeko duen enpresak indarreko araudiak eskatzen dituen baldintza eta betebeharrak guztiak betetzen dituela kontratu hau egiteko.

4) Era berean, lan- eta zerga-arloan araututakoa edo legez xedatutakoa beteko dudala.

.....n, 2009koarenan

Sinadura

“C” gutunazalak **"PROPOSAMEN TEKNIKOA"** izenburua izango du eta hurrengo dokumentuak agertuko dira:

- a) **MEMORIA** bat lizitazio honen xede diren lanak garatuko diren modu osoa deskribatuz. Lanak egiteko jarraituko den metodologia azalduko da.

Memoria zabala eta argia izango da eta aurrez ikusitako jarduera bakoitza zehazki eta xehez aurkeztuko da.

Lan bakoitzaren kasuan prezio unitarioak eta aurrekontu guztia izango ditu.

Memorian sartuko dira oinarritzko elementuen jarduera bakoitzerako diseinuaren proposamenak eta material-motak.

Eskaintzaren hizkuntza-tratamenduak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak integratu beharko ditu, alde batera utzi gabe bakarrik euskara erabiltzea hala eskatzen duten ekintza edo taldeetan.

- b) **LAN-PROGRAMAK** jardueren kronograma izan beharko du eta berariaz eta legez adieraziko dira guztizko epeak eta epe partzialak lizitazioaren xede diren lan guztiak bukatzeko lizitazio-iragarkiak aurrez ikusitako epearen barruan.

Programaren barruan teknikariak atxikiko dira, baita zeregin bakoitzean enpresa azpikontratatuak ere eta bakoitzaren arduraldia.

Lan guztiak hurrengo euskarritan entregatu beharko dira:

Euskarri elektronikoa (2 kopia). Dokumentuak Office 2000 formatuan edo goragokoan; argitalpenak PCrako Freehand formatuan eta Macintoshera Quark XPress edo Freehand formatuan eta PDFn bertsio konprimatuetan goi- eta behe-bereizmenean babesik gabe; irati-igorpenak MP3 (gutxienez 192 Kbps) eta WAC forman PCrako; argazki-materialarentzat tiff eta jpg formatua.

Laburpen-dokumentua dibulgazio-formatuan San Markoseko Mankomunitateko web orrian zintzilikatzeko.

Gainera, egindako lanen bi kopia entregatuko dira paper birziklatuan eta bi aldeetatik inprimatuak.

19.- KONTRATAZIO-MAHAIA

Kontratazio Mahaia hurrengo moduan osatuko da:

LEHENDAKARIA: San Markoseko Mankomunitateko Lehendakaria

1. MAHAIKIDEA: Mankomunitateko Lehendakariordea

2. MAHAIKIDEA: San Markoseko Mankomunitateko Idazkaria

3. MAHAIKIDEA: San Markoseko Mankomunitateko Kontu-hartzailea

4. MAHAIKIDEA: San Markoseko Mankomunitateko teknikari bat

20. DOKUMENTUAK KALIFIKATZEA, ENPRESAK HAUTATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaitzen denean, Mahaiak garaiz eta legez jasotako dokumentazioa (“A” gutunazala) kalifikatuko du eta, horretarako, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrak 81. artikuluan eta hurrengoetan aipatutako moduan jardungo du.

Xede horrez, argitzea eska daiteke; halaber, bestelako dokumentu osagarriak eskatu ahal izango dira eskaintzaileen ahalmen eta kaudimenari buruz. Horiek entregatu beharko dira, Araudiaren 22. artikulua zedatzen duen bezala, bost egun naturalen epean. Argibideak edo informazio osagarria eskatu nahi izanez

gero, Mahaiak ahoz jakinaraziko die interesatuei eta, aldi berean, kontratazio-organoaren iragarkien oholtzan iragarriko da, baita kontratugilearen profilean ere. Modu berean jakinaraziko ditu Mahaiak aurkeztutako dokumentazioan konpon daitezkeen akatsak, kasu honetan, hiru lanegunetan eskaintzaileek aurkitutako akatsak konpondu edo zuzentzeko.

Mahaiak aurkeztutako dokumentazioa kalifikatu ondoren eta, hala badagokio, aurkitutako akatsak edo ahaztean konpondu ostean, hautespene-irizpideak betetzen dituzten enpresak zehaztuko ditu. Horiek orriaren 18. baldintzak xedatuak daude. Berariaz aipatuko dira lizitazioan onartutakoak, baztertutakoak eta baztertzearren arrazoiak.

Aurkeztutako eskaintzak ("B" gutunazala) egintza publikoan irekiko dira proposamenak aurkezteko epea amaitu eta laugarren lanegunetan 12:00etan, postaz bidaltzen den kasuetan izan ezik. Kasu horretan Herri Administrazioen Kontratuari buruzko Legearen Araudi Orokorra xedatutakoari erreparatuko zaio.

Ondoren, proposamenak baloratu eta sailkatuko dira goitik behera 17. baldintzan xedatutako irizpideei jarraiki eta egokitzen jotzen diren txosten teknikoak egin ondoren, Kontratazio Mahaiak kontratuaren esleipen-proposamena Kontratazio Organoari aurkeztuko dio.

21. ESLEIPENA, LEGEZTATZEA ETA GASTUAK

Kontratazio Organoak kontratuaren behin-behineko esleipena adostuko du eta proposamen abantailatsuenaren alde egingo da.

Behin-behineko esleipena 2 hilabeteren buruan egingo da, proposamenak ireki eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita; eskaintzaile guztiei jakinaraziko zaie eta, era berean, San Markoseko Mankomunitateko kontratugilearen profilean () argitaratuko da. Epe hori hamabost lanegunetaz zabaldu egingo da, SPKLk 145.3. artikuluan aurrez ikusitakoaren babesean, SPKLk 136.3. artikuluan xedatutako izapideak jarraitu behar direnean, proposamen bat edo gehiago proportzioz kanpokoak edo ohiz kanpokoak direnean.

Eskaintzak proportzioz kanpokotzat edo ohiz kanpokotzat jotzeko, alde aurretik eskaintzaileari edo, hala badagokio, eskaintzaileei entzuzko zaie eta dagokionaren aholkularitza teknikoak izango da.

Kasu horretan, Kontratazio Organoak, eskaintzaileak egindako justifikazioa eta eskatutako txostenak ikusirik, behin-behineko esleipena erabakiko du ekonomikoki abantailatsuenaren alde, Administrazioaren asetze-mailarekin egin daitekeelakoan. Hori ezean, ohiz kanpokotzat edo neurritz kanpokotzat jotzen ez den proposamenaren alde egingo da behin-behineko esleipena.

Behin-behineko esleipena kontratugilearen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, hamabost lanegunetan behin-behineko esleipendunak hurrengo jarduerak egin beharko ditu:

- a) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekin betebeharrak bete dituela egiaztatzen duen ziurtagiria, ziurtagiriak proposamenarekin batera aurkeztu ez badira. Halaber, kontratua gauzatzeko atxikitzea konprometitu dituen bitartekoak egiaz eskura dituela ziurtatzen duen dokumentazioa.
- b) Behin betiko bermea osatzea.
- c) Esleipendunak Erantzukizun Zibil Profesionala estaltzeko Aseguru Poliza sinatu duela egiaztatu beharko du. Gutxieneko zenbatekoa ehun mila euro (100.000 €) izango da. Horri dagokion prima ordaindu izanaren ziurtagiria aurkeztuko da.

Behin-behineko esleipenak behin betiko bihurtu beharko du hamar lanegunen buruan. Epea arestian aipatutako epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da zenbatzen, betiere esleipendunak adierazitako jarduerak egin baditu. Jarduera horiek egiten ez badira, ez da behin betiko esleipenik egingo behin-behineko esleipendunaren alde.

SPKLk 139.2. artikuluan aurrez ikusitakoaren babesean, kontratua egiteari uko egiten bazaio edo prozedura bertan behera uzten bada, eskaintzaileei lizitazioak sortutako gastuak Administrazioak finkatuko du entzun eta justifikatu ondoren.

Kontratua Kontratazio Organoak egindako behin betiko esleipenaren bidez legeztatuko da eta esleipendunari jakinaraziko zaio. Horrek hamar laneguneko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, hurrengo jarduerak egin beharko ditu:

- a) Aldizkari ofizialetan eta egunkarietan egindako kontratuaren publizitate ofizialaren eta iragarkien gastuak ordaintzea, hala baleude eta une horretan zenbat badaitezke. Oraindik ezin badaitezke zenbat, ordainketa zenbatekoa ezagutzen denean egingo da.
- b) Azkenik, Administrazioan agertzea kontratua administrazio-dokumentu bezala legeztatzeko.

Kontratatari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua ez bada legeztatzen, Administrazioak ebaztea erabaki dezake, interesatuari entzun ondoren, eta kalte-galerengatik kalte-ordaina ordaindu beharko du.

III.- IZAERA ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

22. IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Orri honetan oinarrituta egindako kontratua administratiboa izango da eta bertan aurrez ikusten ez den guztirako 30/2007 Legeak, urriaren 30ekoak, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoak; Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrak, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onartutakoak, eta Herri Administrazioen kontratazioan gainerako arau aplikagarriek xedatutakoari erreparatuko zaio.

Orri honetako baldintzak kontratuaren barruan daude.

Administrazio Baldintza Berezien Orriaren eta espedienteari erantsitako gainerako dokumentazio teknikoaren artean kontraesanik izanez gero, Orrian xedatutakoa nagusi izango da.

23. DATU PERTSONALAK BABESTEA

Kontratazio honen bidez datu pertsonalak lortu behar badira, kontratistak SPKLk Hogeita Hamahirugarren Xedapen Osagarrian aipatutako betebeharrak bete beharko ditu 15/1999 Lege Organikoari, abenduaren 13koari, Datu Pertsonalak Babesten dituenari, eta bere garapen-araudiari buruz.

24. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratuaren interpretazio, aldaketa, ebazpen eta ondorioei buruz sor daitezkeen gai gatazkatsuetan kontratazio-organoak erabakiko du eta horren erabakiek administrazio-bidea amaituko dute. Horien kontra administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke, jurisdikzio hori arautzen duen Legeak aurrez ikusitakoarekin bat, alde batera utzi gabe interesatuek hautazko berraztertze errekurtsua jar dezaketela, Herri Administrazioen Jardunbide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Komunari buruzko 30/1992 Legeak 116. eta 117. artikuluetan aurrez ikusitakoaren arabera.

Donostian, 2009ko ekainaren 30ean

Baldintza Ekonomiko Administratibo Berezien Orria eta Baldintza Tekniko Berezien orria 2009ko uztailaren 1eko 37/09 Lehendakaritzaren erabakiz onartu zen.

